

Martin Ugalde, inkonformistaren laudorioa

Joxerra Zabala

Euskaldunon Egunkaria, 2001-11-01: 4.

Martín Ugalderena (Andoain, 1921) zalantzarik gabe, hain gogorki astindutako azken mendeko euskal gizartean ezagutu dugun ekintzaile aberats eta konplexuenetariko bat da. Erbesteari buruz hitz egiten badugu, idazlea Venezuelan aurkituko dugu bizitzen. Gerra galduaren zauriak aztertu nahi baditugu, Ugaldetarrenak oraindik irekita daude. Euskal diaspora ezagutzerakoan andoaindarraren lana berehala agertuko zaigu. Eta eginkizunen alorrean, jakina, hortxe dago Venezuela eta Euskal Herriko kazetaritzan eta berezko literaturetan egin duen lan eskerga. Hauekin batera ezin dugu klandestinitatean eta Franco hil ondoren Ugaldek eginiko lan politikoa ahaztu; zentzu honetan idazleak ondo asko ezagutu zuen hain ankerra izan zen barruko erbestea, frankismoari aurre egiten saiatu ziren disidenteena, alegia.

Arlo guztiotan, ene ustez, Ugalderen jarrera eta jarduera definitzeko, eta baita haren biografia bera ere, hitz bat erabil dezakegu: inkonformismoa. Nahiz eta indarren korrelazioa erabat desberdina izan, gizon hau inoiz ez da etsi, itxaropenarentzat eta errealitatea aldatzeko zirrikituak beti bilatu eta aurkitu egin baititu. Gaur egun, berriro ere gizarte desobedientziaren aurkako sorginen ehiza zabaldu denean, ziur nahiz duen adinagatik ez balitz izango, behin baino gehiagotan bere izena epaileen informazioari buruzko orrialdetan ikusiko genuela. Hau erakusteko azken asteetako zenbait berri besterik ez dugu aipatu behar, besteak beste, EUSKALDUNON EGUNKARIAren eta euskal argialetxeen aurkako erasoak, berriro ere, euskal kulturaren aitzindariak diren erakundeak kriminalizatzeko bidean jartzeko operazioan, seguru ere herri honen normalizazio demokratikoari mesederik egingo ez dion operazioan.

Hori guztia dela eta, Martin Ugalderen irudiak garrantzi berezia du eta ez bakarrik omenaldiak egiteko helburuarekin, ondo aztertu eta baloratu behar den lanaren egilea izan delako baizik. Euskal Herrian horrelako izen handien sobera ez baikabiltza. Zentzu horretan azaroaren 5etik 9ra egingo den Martin Ugaldek bere herria helburu izenburuko nazioarteko batzarra eztabaida leku ederra izan daiteke errebindikazio eta balore horiek zabaltzeko asmoan. Batzar hori Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Euskal Herriko eta Deustuko Unibertsitateen elkarrekiko laguntzaz egingo da eta, nolabait, arlo desberdinetako onespina moduan uler daiteke. Bost egunetan zehar Bernardo Atxaga, Andu Lertxundi, Xoxe Estévez, Txomin Peillen, Arantza Amezaga, Jose Luis Abellan, Joan Mari Torrealdei, Jose Angel Ascunce bezalako intelektuak eta idazleek Ugalderen biografia eta lan aberatsaren inguruko perspektiba eta azterketa desberdinak azalduko dituzte.

Frankismoaren ilegaltasunaren mugetan beraietan agertutako liburu batean azalean, -1975eko irailean argitaratutakoa *Hablando con los Chillida, escultor vasco* lanean hain zuzen-, Ugaldek Pierre de Lancreren jurisdikzioan berean idatzi zuela esaten da.

Komentario horrekin gauza desberdin batzuk aipatu nahi da, aurrekoan Iparraldean argitaratutakoa *Las brujas de Sorjín* nobela, baina baita ere Ugaldere beraren egoera, inkisidore berriek bere Hondarribiko etxetik kanporatuta eta, Migel Unamunok esan zuen bezala, euskal etxearen beste gelan, hau da, Lapurdiko Donibane Lohizunen bizitzen behartuta. Egun, Lancreren ondorengoek berean darraie eta, horregatik, Ugaldere pentsamenduak errealitatea aldatzeko asmoan bide berriak bilatzeko deialdia izaten jarrai dezake, inkonformismo utopiko eta, aldi berean, errealista batean sustraituta, inor baztertu gabe, euskaldun guztiekin hizketan. Sigmund Freudek esan zuen arrazoiaren ahotsa, tematsua izan arren, emozioen garrasien erdian ahopean esandakoa bezala gera daitekeela. Bada horrelakoa da Martinen ahotsa ere: tematsua eta, hainbeste zarata artean isil arazitakoa. Hala ere, ondo entzutea merezi du.